



*Varonatarren Dorre-
Jauregi sendoa, Villanañen
(Araba), XIV. mendean
hasi ziren eraikitzen eta,
gaur egun, Euskadin
hobekien kontserbatu den
multzo gotortua da.*

Harpeetako pinturetatik hasi eta eraikuntzarik abangoardistenetara, Euskadin estilo estetikoaren aukera zabal bezain interesgarria izango dugu ikusgai. Estibalizko basilikako harri erromanikoak, Gotikoko tenplu eta dorre handiak, Loiolako santutegiko barrokismo zirrargarria, Arantzazu bilgune duten euskal abangoardistak edo Guggenheim Bilbao Museorekin nazioarteko estilo garaikidea Euskadi monumentalean zehar egingo dugun bide luzearen urratsetako batzuk besterik ez dira.

Lehenengo adierazpen artistikoak Laperra Benta (Karrantza), Santimamiñe (Kortezubi), Altxerri (Orio) eta Ekaineko (Deba) kobazuloetan grabatutakoak ditugu. Haitzuloetako artistek, jarduera nagusi ehiza zutenek, zaldien, bisonteen eta hartzen irudi eskematiko eta ederrak utzi zizkiguten. Historiaurreko euskaldunek hilobi-eraikuntza deigarriak ere utzi zizkiguten, dolmenak eta cromlechak hain zuzen ere. Baita animalia-irudi misteriotsu bat ere, Mikeldiko irudia, Bilbaoko Euskal Museo Arkeologikoan dagoena.

Erromatarrek ere utzi zuten arrastorik hainbat obra arkitektonikotan. Horietako batzuen hondarrak gordetzen dira oraindik ere. Horien artean aipatzekoa da Mantible zubia, Asan (Errioxa Arabarrean) dagoena. Zubiaren zazpi arkuak Ebro ibaiaren gaineko 164 metro estaltzen zituzten. Halaber, Iruñako Oppidum-a, Vitoria-Gasteiztik hurbil dagoen hiri erromatarra.

Arabak, igarobide eta Santiago-bidearen barnealdeko ibilbidearen ardatz izaki, protagonismo handia izan zuen Erdi Aroaren hasieran. Hori dela

eta, lurralde honetan aurkituko dugu eraikuntza erromaniko gehien, baita kalitate arkitektonikorik handienekoak ere. San Prudentzio eliza, Armentian, eta Estibalizko basilika dira Arabako Lautadako lila-iturri.

Aldi erromanikoari dagokionez, beranduxeagoko beste bi adibide ere aipa genitzake: Elexaldeko Andre Maria eliza, Galdakaon (Bizkaia) eta Zumarragako Antiguako santutegia (Gipuzkoa), "euskal ermiten katedral" deitu ohi dutena. Erljio-taila batzuk eskultura erromanikoaren lekuko ditugu.

Gotikoko bitxiak

Euskadik Berant Erdi Aroan izandako garapena handiagoa izan zenez, ugariak dira arkitektura gotikoaren adierazgarriak. Estilo hori, tenpluetan ez ezik gotorlekuetan, harresiz inguraturiko hiribilduen hirigintzan, administrazio-eraikinetan eta dorretxeetan islatzen da. Hiriek garai honetan izandako bultzadaren ondorioz, egun eraikuntza gotikoak ditugu ikusgai Vitoria-Gasteizen (Santa Maria katedrala), Bilbaon (Santiago katedral zaharberritua) nahiz Donostia-San Sebastiánen (San Bizente eliza).

Bestalde, ezin aipatu gabe utzi gotikoaren beste zenbait altxor. Araban, Mendozatarren dorrea, Gazeo eliza estaltzen duten freskoak eta Laguardiako monumentu-multzo osoa. Bizkaian, Lekeitio, Gernika-Lumon eta Orduñan Andre Mariari eskainitako elizak eta Muñatones dorrea. Gipuzkoan, berriz, Hondarribiko harresi-multzoa, Zarauzko Luzea dorrea eta Getariako Salbatore Deunaren eliza.

2000 URTE HARRIZ HARRI



BILGUNE ABANGOARDISTA

Arkitekto eta eskultore garaikideen obra Euskadiko hainbat txokotan ikus daitekeen arren, Arantzazuko santutegia da, ziurrenik, abangoardiako artearen erakusgaririk onena.

Kokaleku duen ingurune paregabean basilika berria eraikitzeko hainbat sortzailereren laguntza izan zuten 50eko hamarkadan. Horiek benetako eten estetikoak ekarri zuen obran bildu ziren.

Arkitektura-proiektua Sáinz de Oiza eta Luis Laorgarena izan zen. Fatxadako eskulturak (hamabi beharrea hamahiru dira bertako apostoluak), berriz, Jorge Oteizarenak dira. Ateak, aldiz, Eduardo Chillida gaztearenak. Erretaula zoragarria, aitzitik, Lucio Muñozek egindakoa. Kriptako pinturak Nestor Basterretxearenak. Errepikaezina.



LEKEITIOKO ERRETAULA FLANDESTARRA.

Aldi gotikoaren bitxietako bat Lekeition (Bizkaian) dugu, bertako Jasokundeko Andre Mariaren elizan zehatzago esatearren. Bete-beteen gotikoak diren kontrahorma eta arbotantez gain, geldiro ikusteko modukoa da erretaula nagusia, Mariaren bizitza eta Kristoren nekaldia irudikatzen dituena. Lan hori adierazkortasun eta xehetasun handiko maisu flandestar batena dela uste da.

UNIBERTSITATE ERRENAZENTISTA.

Euskadin, errenazimenduaz ari garela, ezinbestekoa da aipatzea Oñatiko Unibertsitatea (Gipuzkoa). Izan ere, paradigma errenazentista dugu, bai bertako forma arkitektonikoei dagokienez, bai bertako erakundearen

izpiritu irekiari dagokionez. Sancti Spiritus unibertsitatea patio lasai baten inguruan antolatutako eraikin ederra dugu. Irudi alegorikoak dituen fatxada platereskoa eta alboetan goratuago dauden bi gorputzak dira harmonia bete-beteko eraikin honen ezaugarri nagusiak.



dituena. Gisa horretakoak ditugu Montero etxea (Rekalde zumarkalean dagoena) edo Campos Eliseos antzokia, Darrogyu frantziarrak apaindutakoa. Donostia-San Sebastiánen ere baditugu dekorazio modernista naroak dituzten etxeak, Prim kalean hain justu.

IRUÑAKO ERROMATARRAK.

Trasponten, Vitoria-Gasteiztik oso hurbil, erromatar inperioko hiri bat zatekeena hauteman dezakegu. Iruñako Oppidum-a harresi lodi batek inguraturiko asentamendu erromatarra da, Veleia zaharrari dagokiona, hain zuzen. Bertan oraindik ere ikus ditzakegu foro baten aztarnak, hiri-egituraren arrastoak eta Zadorra ibaiaren gaineko bi zubi.

BALMASEDAKO ZUBI ERROMANIKOA.

Zubi zaharra edo La Muza zubia da Balmasedako elementurik enblematikoenetako bat. XIII. mendean erromatar jatorriko beste zubi baten hondarren gainean eraikitako zubi erromaniko hau, monumentu nazional izendatutakoa, Gaztelako



bide zaharreko ezinbesteko igarobide zen.





Euskadin Barrokoaren handitasuna ikusteko Loiolako santutegia izango dugu lekurik nagusiena (Gipuzkoa). Carlos Fontanak, Beniniren ikasle izan zenak, diseinatu zuen, baina Churriqueraren ekarria ere nabarmena izan zen. Multzo osoaren zatirik azpimarragarriena Erdiko basilika da. Berorren kupula ikusgarriak 65 metroko altuera du eta bertan lan zaila egin behar izan dute sortutako pitzadurak geldiarazteko.

Errenazimenduan, hots XVI. mendean, nabarmen bizkortu zen Euskadin eraikuntza-erritmoa, nahiz eta eraikuntza-lan horietako batzuk Erdi Aroko dorretxeak moztera eta horietan galeriak irekitzera edo aurreko mendeetan hasitako elizak bukatzera mugatu. Errenazimenduaren ondorioz, beste tenplu-eredu bat gailendu zen, “aretoko” elizena alegia: altuera berean gangaz estalitako hiru nabe, espazio bateratua osatzen dutenak. Gipuzkoan ikusi ahal izango ditugu arkitektura errenazentistako adierazgarriak bikainenak: Oñatiko Unibertsitatea eta Bergarako Errege Apaizgaitegia. Eraikinetako apaindura eskultorikoa ez da berdina guztietan, izan ere, horien artean ditugu gehiegi apaindutako estilo platereskoa, kanpoko artistek ekarritako manierismo adierazkorra eta Juan de Antxieta azpeitiarrak zizelatutako erretaulen sosegua.

Barrokoari dagokionez, Loiolako santutegia, Azpeitian (Gipuzkoan) dagoena, izan zen ekarri nagusia. Horren ondoan, ordena komentualen tenpluen eraikuntzan oinarritu zen arkitektura. Oro har gurutze-oinplanokoa eta Trentoko Kontzilioaren osteko apaindura-xumetasunekoa. Aldi horretan eraikitako udaletxeek ere eskema berdina dute (aldi horretakoak dira Labastidakoa, Elorriokoa, Durangokoa –pintura rococoak dituena–, Oñatikoa eta Arrasatekoa besteak beste). Eraikin arkupetuak dira, tokian tokiko armarrria fatxadan gailen dutenak.

Hainbat mendetan erlijio-arkitektura nagusi izan ondoren, Neoklasizismoaren eraginez hirigintzak eta arkitektura zibilak izan zuten lehentasuna. Garai horretakoak ditugu, hain zuzen ere, Gernikako juntetxea, hiriburu-tako zabalgunek, Bilbaoko Plaza Barria eta Vitoria-Gasteizko izen bereko plaza, Plaza Berria. Vitoria-Gasteizi gagozkiola, azpimarratzekoa

da Arkupeko multzoa (Los Arquillos) deiturikoa, bi eremuren mailen arteko desberdintasuna gainditzeko irtenbide arkitektonikoa, irudimen handikoa benetan.

Eklektizismoaren garaipena

XIX. mendean eklektizismoa izan zen nagusi Euskadin. Bestela esan, hainbat estilotako elementuak hartu zituzten nortasun handiko eraikinak sortzeko. Ildo horretatik, aipatzekoak dira Bilbaoko udaletxea, Foru Aldundiko jauregia eta Arriaga antzokia, edo Donostia-San Sebastiángo Maria Cristina hotela, Victoria Eugenia antzokia eta garai batean Kasino Handia izan zena (gaur egun udaletxe dena). Bi hiriburu-tan, Bilbaon nahiz Donostia-San Sebastiánen, joera modernistako arkitektura-adibideak eraiki ziren XX. mendearen hasieran.

Arantzazuko santutegia izan zen abangoardia estetikoaren abiapuntu nagusia. Talde-lan horretan Jorge Oteiza eta Eduardo Chillida -oraintsu hildako jakintsu bi noren eztabaida eta proposamenek hogeigarren mendean aztarna garrantzitsua utzi duten-, jadanik sortzaileen artean agertzen ziren. Chillidaren obra itsasaldeko Haizearen Orrazian ikus dezakegu (Donostia-San Sebastiánen), baita Foru plazan (Vitoria-Gasteizen) edo Europako Herrien Parkean ere (Gernika-Lumon).

Azken urteetan, artearen arlo guztietako euskal sortzaile interesgarrien lana alde batera utzi gabe, proiektu handiak egin dira Euskadin. Horietako asko, gainera, kanpoko arkitekto esanguratsuei eskatutakoak izan dira: Guggenheim Bilbao Museoa (Frank Gehry), Bilbaoko metroa (Norman Foster) edo Kursaal jauregia (Rafael Moneo nafarrak egindakoa).

SANTIAGO-BIDEETAN BARRENA

BI BIDE ETA HELMUGA BAKARRA

Santiagoa zihoazen erromesek bi bideetatik zeharkatzen zuten Euskadi. Bata Kostaldeko Bidea da, Gipuzkoako itsasertz malkartsuan eta Bizkaiko haran berdeetan barrena doana. Bestea, Barnealdeko Bidea, Arabako Lautadan San Adrian Tunela zeharkatuz sartzen zena. Gaur egun ere bi bide horiek egin ditzakegu, Euskadiko aniztasuna ezagutzea aitzakiazat eta mendetan zehar ermita, eliza eta basiliketan gordetako artea balioestea helburutzat hartuta.



KOSTALDEKO BIDEA

1 GUADALUPEKO SANTUTEGIA. Hondarribitik Jaizkibel mendian gora, paisaia ederrean murgilduta dago Guadalupeko Ama, inguru horretan asko gurtzen dutena, gordetzen duen tenplu soila (XV. mendekoa).

2 TOURSEKO SAN MARTINEN ERMITA. Orioko ermita honek erromesen zaindariaren irudi plateresko ederra du barnean.

3 ITZIARKO SANTUTEGIA. Zumaia eta Deba arteko muinoan ezinbesteko geldialdia egiten zuten erromesek. Nabarmentzekoak dira Ama Birjinaren irudia, XIII. mendekoa, eta erretaula platereskoa.

4 ARRETXINAGAKO SAN MIGELEN ERMITA. Megalito hirukoitz naturala da oin hexagonal duen ermita honetako aldare bitxia. Markina-Xemeinen dago.

5 ZENARRUZAKO KOLEGIATA. Galtzada batetik barrena iritsiko gara Bizkaiko kolegiata bakarrera, Ziortzan dagoenera, hain justu.

Bertako erretaula eta kaperetan estilo artistikoen adierazgarri bikainak izango ditugu ikusgai.

6 BEGOÑAKO AMA BIRJINAREN BASILIKA. Bizkaiko zaindaria gurtzeko tenpluak Bilbao menderatzen du inguruko mendixka batekin. Nahiz eta eliza gerokoa izan (gotiko berantiarrekoa da), Ama Birjinaren irudia erromanikoa da.

San Seberino



7 SAN SEBERINO ELIZA. Balmasedako eliza hau XIV. eta XV. mendeetan eraiki zuten, estilo gotikoan. Ondoren estilo barrokoarekin apaindu zuten. Hori dela eta, oso morfologia berezia du.

1 JUNKALGO AMAREN ELIZA. Irungo eraikin garrantzitsua, euskal estilo gotikokoa, 1508an hasi ziren eraikitzen. Barruan obra paregabeak ditu: Junkalگو amaren irudia, Gipuzkoako zaharrena, eta XVII. mendeko erretaula handia, Juan de Bascardo eta Domingo de Zatarainen lana.

2 SANTIOMENDIKO ERMITA. Astigarragako eraikin soil eta enblematikoa. Apostoluaren alabastroko taila Donostiako Elizbarrutiko Museora eramán zuten.



3 JASOKUNDEKO ELIZA. XVI. mendeko gotikoaren erakusgarri zoragarria, erretaula churrigueresko ederrarekin, Segurako Erdi Aroko erakargarrietako bat da. Elizan ez da falta Santiagori eskainitako kapera.

BARNEALDEKO BIDEA

4 SANCTI - SPIRITUS ERMITA. San Adrian tunelaren inguruan dago ermita, Gipuzkoa eta Arabaren arteko muga naturalean. Tenplarioen lehengo ospitalea zena. Bere oinetan mikeleteen etxe handia ikusten da, gaur egun mendiko aterpetxe bihurtutakoa.

5 SAN JULIAN ETA SANTA BASILISAREN ERMITA. San Adrian tunel enblematikoa, Gipuzkoa eta Araba banatzen dituena, zeharkatu ondoren, erromesek Zalduondoko ermita prerromaniko honetan hartzen zuten atsedean.

Gazeoko San Martin




6 GAZEOKO SAN MARTIN ELIZA. Bertako absidea eta presbiterioa erlijio-eszenak irudikatzen dituzten pintura gotikoek estaltzen dituzte guztiz.

7 ESTIBALIZKO SANTUTEGIA. Hauxe dugu Euskadiko Erdi Aroko arkitektura erakusgarri onenetakoa. Barnean XII. mendeko Ama Birjina dago, Arabako zaindariaren irudia, hain zuzen ere.

8 SAN PRUDENTZIO BASILIKA. Armentian (Vitoria-Gasteiz) dagoen eraikin honek bere edertasunari eutsi dio, XII. mendearen amaieran eraiki zenetik hamaika aldiz zaharberritu bada ere. Arkupearen barnean garai bateko atari erromaniko-aren zatiak daude. Arreta berezia merezi dute Bildotsaren eta Salbatzailearen tinpanoek.

San Prudentzio



Zenarruzako Kolegiata